

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

232. zenbakia

Data 2000-12-07

19364 orria

7 UDAL ADMINISTRAZIOA

DONOSTIAKO UDALA

San Martin Merkatu berriko oinarritzko erregelamenduaren onespena.

DONOSTIAKO UDALA

Zerbitzu Bereziak

Iragarkia

Donostiako Udalak, 2000ko urriaren 26an eginiko bilkuran, San Martin Azoka Berriaren Oinarritzko Araudiaren kontra ezarritako berraztertze errekutsoak gaitzetsi egin ditu.

Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzekoak, bere 2. artikuluan jasotakoari jarraiki, San Martin Azoka Berriaren Oinarritzko Araudiaren testua ematen da argitara.

Araudi horren kontra, administrazioarekiko auzi errekur-tsoa aurkez daiteke Euskadiko Auzitegi Nagusian, araudia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik bi hilabete iragan aurretik.

Donostia, 2000ko azaroaren 30a.—Juan José Martínez Aguado, Zerbitzu Bereziakoko Bulegoko Burua.
(12587)

3. SAN MARTIN AZOKA BERRIAREN OINARRIZKO ARAUTEGIA

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

I. KAPITULUA.XEDEA

1. atala.

San Martin Azoka Berriko instalazioetan eman beharreko zerbitzu publikoaren oinarritzko lege-erregimena arautzea da arautegi honen xedea.

II. KAPITULUA.ZERBITZU PUBLIKOAREN KUDEAKETA

2. atala.

1. Ekonomia mistoko baltzu batek kudeatuko du San Martin Azoka Berriko instalazioetan eman beharreko zerbitzu publikoa, eta baltzu horretako kide izango da Donostiako Udala. Zerbitzu publikoaren kudeatze-kontratuari dagokiona izango da Udala eta Baltzu Mistoa lotuko dituen harremana.

2.Arautegi honetako xedapenak, herri-administrazioen kontratuak arautzen dituen legeria, toki-

administrazioko legeria eta esleipen hau arautzen duten baldintza-orriak errespetatuz kudeatuko du zerbitzua ekonomia mistoko baltzuak.

III. KAPITULUA.INSTALAZIOAK ETA EUREN ERABILERAK

3. atala.

Donostiako Udalak baimenduak dituen erabileretarako baliatuko dira instalazioak. Edozein jardueraldaketa egin ahal izateko, udalak onespena eman beharko du, eta horretarako, zerbitzua kudeatzen duenak egingo du eskaera.

4. atala.

Instalazioetan nahitaez usalegezko azoka bat ezarri beharko da, Arautegi honetako II. Tituluan zehazten diren ezaugarriak izango dituen. Arautegi honetako III. Tituluan xedatu bezala, inguru horretako bizilagunen ibilgailuetarako lurpeko aparkaleku bat prestatuko da eraikinaren azpian eta bertan plaza-kopuru jakin bat erreserbatuko da errotazioko aparkatze-plazetarako.

5. atala.

Azoka berriak bestelako merkatari-erabilerak ere bildu ditzake eta, orobat, bestelako erabilera osagarriak: Aisialdia, kirola, turismoa, kultura, ostalaritza eta zerbitzuak.

6. atala.

Duten funtzioa dutelako instalazioetan integraturik dauden ostalaritzako establezimenduak ezezik funtzio harekin lotura ez duten halako establezimenduak ere egon ahal izango dira batera. Funtzio aldetik integrazioa dagoela epaitzeko, ostalaritza-erabilera laguntzaileak deitzen direnen eta eraikinaren erabilera nagusiaren arteko komunikazio-guneek egon beharko dute. Haiek eta honek baterako sarbideak izan beharko dituzte. Azokako erabilera nagusiaren funtzionamendu-erregimenaren menpekoak izango dira ostalaritzako erabilerak; hortaz, hauek zabaltzeko eta ixteko orduak jarduera nagusiaren berdinak izango dira.

Funtzio aldetik eraikinean integraturik ez dauden ostalaritzako establezimenduek udalerrian aplikatzen den arautegi orokorrari egokituko diote beren jarduera, zehazki, Establezimendu Tarteei buruzko Udal Ordenantzari.

7. atala.

Instalazioetan egiten diren jarduera orok bete beharko ditu aplikagarri zaizkion arautegi tekniko, sanitario eta beste izaerako guztiak. Orobat, jarduera egiteko beharrezkoa den udal-lizentzia eskuratu beharko dute.

8. atala.

1. Baltzu mistoak hirugarrenak kontratatu ahal izango ditu instalazioetan dauden espazioak ustiatzeko. Merkatariak, usalegezko azokakoak zein instalazioetako gainerako saltokietakoak, eta baltzu mistoa lotuko dituen harremana hiri-alogerei buruzko legeriaren menpeko negozioerako errentamendu-lokalari dagokiona izango da.

2.Errentamendu-kontratuen gehienezko iraupena hamabost urtekoa izango da. Behar bezala zuritzen diren kasuetan, iraupen hori luzatu ahal izango da, lehendik udalak hartarako baimena emana badu.

3.Ez da zilegi izango instalazioetako lokalak besteri alokatzea, Sozietate Mistoak horretarako

baimena ematen ez badu, behintzat.

IV. KAPITULUA.AZOKA BERRIAREN FUNTZIONAMENDUA

9. atala.

Zerbitzuaren barne-eraentzako arautegi bat prestatuko du baltzu mistoak instalazioetako barne-diziplinari buruzko alderdiak arautzeko. Arautegi horren hasierako testua eta ondoko aldakuntzak udalaren erabakimenean ezarri beharko dira onetsiak izateko. Baltzu mistoaren obligazioa izango da zerbitzuaren ordena egokia zaintzea, eta horretarako, behar diren jarraibideak eman ahal izango ditu, polizia-botereak izan ezik, horiek udalak bere gain hartzen baititu, zerbitzuaren titularra den aldetik.

10. atala.

Zerbitzua era jarraituan emango dela bermatuko da. Udalaren eskumena da instalazioetako ordutegiari onespina ematea. Horretarako, baltzu kudeatzaileak udalari aurkeztu beharko dio, instalazioetan egin beharreko erabilerak zehazturik, instalazio horien ordutegi-proposamena. Ordutegi horren barruan, berezitasunak finkatu ahal izango dira lokal bakoitzean egiten den jardueramotaren arabera. Jarduera-mota horiek ordutegi-proposamenean zehaztuko dira. Ordutegia eta bere berezitasunak onetsirik, Barne Eraentzako Arautegian jasoko dira.

11. atala.

Lokal-erabiltzaileek instalazioen gastu komunitatik dagokien zatia ordaindu beharko dute, Barne Eraentzako Arautegian finkatzen den proportzioan ordaindu ere.

12. atala.

Merkataritza-jarduerarik ez duten eta herritarrek erabiltzekoak diren espazio komunek alderdi publikoen izaera izango dute, eta kalifikazio hori jasoko da Barne Eraentzako Arautegian. Udalak beretzat hartzen du espazio horiek edozein unetan bere irizpideen arabera erabiltzeko ahalmena, interes orokorrekoak jotzen dituen erabileretarako. Orobat, elementu mugigarriak, instalazioetan egiten diren jardueretako edozeinekin loturik daudenak, edo beste edozein motatakoak instalatu ahal izateko, beharrezkoa izango da hartarako udal-lizentzia, eta lizentzia hori eman dadin, beharrezkoa izango da baltzu mistoak berariazko txostena ematea.

13. atala.

Publizitatea arautzen duen indarreko legeriak dioena bete beharko du azokaren kanpoko aldean zein barruan egiten den publizitateak.

14. atala.

Euskararen erabilera arautzen duen indarreko legeriak dioena bete beharko da errotuluetan eta informazioa ematen duten gainerako euskailuetan.

15. atala.

Azokako bezeroen eta merkatarien artean sor litezkeen auziak, bi aldeek hala nahi badute, kontsumoko arbitrajearen prozeduraren bidez argituko dira.

16. atala.

Azoka berrira sartu nahi duten bezero guztien sarbide librea sustatuko du baltzu mistoak, eta ezin izango da inolako diskriminaziorik egin.

17. atala.

Baltzu mistoak arautegi honetako xedapenak beteko direla zainduko du. Orobat, adostutako jarraikortasunez eman beharko du zerbitzua eta bermatuko du partikularrek zerbitzua, xedatzen diren baldintzetan, erabiltzeko duten eskubidea.

18. atala.

Baltzu mistoak bere gain hartuko du zerbitzua ematearen ondorioz edo instalazioak, alderdi publiko deiturikoak barne, erabiltzetik sor litezkeen kalteak direla eta, izenda lekiokkeen erantzukizuna.

19. atala.

Instalazioak hornitzeko gaien zamalanak eraikinaren barnetik egin beharko dira. Izan ere, eraikinak hartarako gune bat izango du, azokan egiten diren jarduerak sortarazten dituzten beharrak asetzeko gaitasun nahikoa izango duena. Lanak egiteko orduan, kontuan hartuko da zilegi den gehienezko zarata ateratze-maila.

II. TITULUA

USALEGEZKO AZOKA

I. KAPITULUA.XEDAPEN NAGUSIAK

20. atala.

Barne Eraentzako Arautegiak zehaztuko du usalegezko azoka kokatzeko alderdia. Azoka hori instalazioetako toki nagusian ezarriko da (kalearen mailan dagoen solairua eta -1 sotoa), gutxienez hogeita hamabi (32) saltoki izango ditu eta batez besteko azalera saltokiko hogeita lau (24) metro koadrokoa izango da. Hala dagokien kasuetan, baltzu kudeatzaileak behar bezala zuritu beharko du azalera hori handitu edo murriztu beharra.

21. atala.

Usalegezko azokari dagokion alderdian, gutxienez ehun (100) metro koadroko gune bat izango da, Euskal Herriko eta garaian garaiko produktuen salmentarako, bertan produktu-egileak beraiek izango dira saltzaile.

22. atala.

Usalegezko azokako denda motak eta horien hasierako proportzioa baltzu mistoak definitu eta udalak onetsi beharrekoa izango da. Nolanahi ere, ondoko gaiak saltzen dituzten saltokiak izango dira: Harategia, urdaitegia, oilasko-denda, arrandegia, gai izoztuak, produktuak ozpinetan, kontserbak eta gatzatuak, era askotako janariak, esnekiak, frutak, barazkiak eta okindegiak. Gerora, denda moten proportzioa aldatzekotan, baltzu mistoak aldatu beharko du.

23. atala.

Kasuan kasuko merkataritza-jarduera garatzeko behar diren baldintza teknikoak bete beharko dituzte saltokiek. Azoken zerbitzu publikoaz arduratzen den udal-zerbitzuak zehaztuko ditu baldintza tekniko horiek eta aldian-aldian ikuskatuko ditu saltokiak.

24. atala.

Usalegezko azokaren alderdia eta saltokien tamaina aldatu ahal izateko, baltzu mistoak egin beharko dio proposamena udalari, saltokien errentariei entzun ondoren.

25. atala.

1. Hiri-errentamenduei buruzko legeriaren menpeko negozio-lokalaren errentatze-kontratua izango da usalegezko azokako saltokiak ustiatzeko kontratu-mota

2. Errenta-kontratuaren hasierako iraupena bost urtekoa izango da eta iraupen bereko beste bi luzapen gehiago gauzatu ahal izango dira.

26. atala.

Baltzu mistoak udalaren erabakimenean ezarriko du saltokien errentariak aukeratzeko prozedura. Nolanahi ere, interesatuen publizitatea eta konkurrentzia bermatuko du prozedura horrek, eta kasu guztietan arrazoitu beharko da esleipena. Saltokiak esleitzeko irizpideak izango dira, besteak beste, interesatuen profesionaltasuna eta interesatuak Donostian bizi izatea.

27. atala.

Txosten tekniko independente batek finkatuko ditu merkatuko prezioak eta horren arabera kalkulatu du baltzu mistoak saltokiak errentan emateko urteko prezioak eta aurkeztuko dizkio udalari. Proposamena azterturik, udalak urtero-urtero onetsiko ditu errenta-prezioak eta errentariak aukeratzeko prozesuetarako prezio-oinarriak, halakorik egin behar izatekotan.

28. atala.

Errentariak beraiek ustiatu beharko dituzte saltokiak, eta ez dago suberrentan uzteko aukerarik.

29. atala.

Hutsik gelditzen diren saltokiak errentatzeko obligazioa dauka baltzu mistoak, saltoki horiek ustiatzeko inor interesaturik badago eta beti ere udalak onetsitako hautatze-prozeduretarako oinarri-preziora ordaintzen badu. Saltoki horietakoren bat errentan hartzeko inor interesaturik ez balego, baltzu mistoak erabaki ahal izango du saltoki horretan beste gai batzuk saltzea, saltokia kentzea edo aldamenekoarekin bat egitea.

30. atala.

Usalegezko azoka birmoldatzeko proiektuak udalaren erabakimenean jarri beharko ditu baltzu mistoak, egoerak hala aholkatzen duenean eta, era guztietara, hamabost urtero.

Arautegi honetako Aldi baterako bigarren Xedapenean ezarritakoaren arabera arautzen den harremana duten azokako errentariak hartu beharko dute bere gain hamabost urtero nahitaez egin behar den birmoldaketaren kostua. Gainerako kasuetan, baltzu mistoak ordainduko du birmoldaketa, eta baltzuak ezarri ahal izango die errentariei dagoeneko amortizaturik duten saltokiaren zatiari dagokion proportzioa.

31. atala.

Urteko hamabi hilabetez egingo da usalegezko azokaren ustiapena, etenik gabe. Azokako denda

motak eta horien proportzioa definiturik eta lanean hasi aurretik, baltzu mistoak udalari aurkeztu beharko dio ordutegi-proposamena, hark onetsi dezan. Ordutegia onetsi eta Barne Eraentzako Arautegian jaso beharko da.

II. KAPITULUA.BASERRITARRAK

32. atala.

1. Arautegi honetako 21. atalak aipatzen duen alderdia Euskal Herriko produktuak ekoizleek beraiek saltzeko erreserbatuko da.

2.Beren produktuak usalegezko azokan saldu nahi lituzketen ekoizleek udalari eskatu beharko diote hartarako baimena. Baimena eskuratzeko, eskabidea eta eskatzen den dokumentazioa aurkeztu beharko du, eskatzailea ekoizle dela frogatuz eta jarduera hori egiteko, legearen aldetik, osasunaren eta bestelako alderdien aldetik eskatzen zaizkion betebeharrak betetzen dituela frogatuz. Gai horri datzekion udalaren administrazio-atalak baimen-eskabideari buruzko txostena egin eta gai horretan eskua duen udal-organoari aurkeztuko dio.

3.Salmentarako baimena norberarena eta beste inori ezin aldatuzkoa izango da eta urtero berrituko da.

4.Ekoizleek okupatzen dituzten saltokien erabilera-erregimena Donostiako Udalak oro har jarduera horretarako xedatua duena izango da.

5.Aurreko paragrafoetan aurreikusi den jarduera San Martin azoka berriko barne aldean egin nahi duten ekoizleek baltzu mistoak zehazten duen diru-kopurua ordaindu beharko dute, instalazioak okupatze aldera, eta gastu komunetan dagokien zatia ere ordainduko dute.

33. atala.

Baserritarren jarduera-ordutegia udalari aurkeztuko zaio berak onetsi dezan. Onetsi ondoan, Barne Eraentzako Arautegian jasoko da.

III. TITULUA

LURPEKO APARKALEKUA

34. atala.

Aparkalekuko plazen ehunetik hirurogei gutxi-asko arautegi honetako 35.5 atalean jasotako auzotarren eta merkatarien ibilgailuetarako izango dira, eta gainerako ehunetik berrogei errotazioko aparkalekua izango da.

Baltzu mistoak eskaturik, udalaren zerbitzu teknikoek aldeko txostena emanaz gero, udalak baimendu dezake errotazioko plazak auzotarren eta merkatarien plazak bihurtzea.

Usalegezko azokako saltokiak okupatzen dituztenek lehentasunezko eskubidea izango dute auzotarrei dagokien aparkalekuko plazak erabiltzeko, hartarako ezartzen den prezioa ordainduz. Baltzu kudeatzaileak, orobat, formulak finkatu ahal izango ditu aparkatze-plaza bat instalazioetako lokal bakoitzeko eskaini ahal izateko.

I KAPITULUA.AUZOTARRENTZAKO ETA MERKATARIENTZAKO APARKALEKUA

35. atala.

Auzotarren plazak:

1. Udalak plazen esleipendun izendatzen dituen pertsonak eta ez beste inork erabiliko dute aparkalekua.
2. Plazak erabiltzeko eskubidea esleitu ahal izateko, interesatuek ondoko betebeharrak bete beharko dituzte:

a)Auzokoak:

- Eskabidean adierazten den helbidean erroldaturik egotea.
- Ibilgailu baten titularra izatea.
- Indarrean dagoen gida-baimena edukitzea
- Ez edukitzea aparkatze-plaza pribatu bat ezta udal-lagapenezkoa ere.

b)Merkatariak, profesionalak edota industrialak:

- Alderdi horretan helbidea duen jarduera baten titularra izatea.
- Ibilgailu baten titularra izatea.
- Indarrean dagoen gida-baimena edukitzea.
- Ez edukitzea aparkatze-plaza pribatu bat ezta udal-lagapenezkoa ere.

Adierazi diren betebeharrak interesatuek frogatzeko, plaza eskatzeko eskabide-orri normalizatuetan adieraziko den dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

3.Mugikortasuneko Administrazio Atalak iragarki bat plazaratuko du aparkatzeko plazak erabiltzaile izateko behar direnak adieraziz eta izena emateko epea zehaztuz. Horrekin batera, iragarkian adieraziko da onartuen eta baztertuen zerrendak jendaurrean noiztik egongo diren ikusgai, hartara erreklamazioak egin ahal izateko.

4.Mugikortasuneko Administrazio Atalak prestatu eta ikusgai jarriko ditu plazak erabiltzeko esleipenean parte hartzeko aukera duten interesatu onartuen zerrenda. Zerrenda horretan agertzeko, arautegi honetan esan diren baldintzak bete beharko dira. Orobat, baztertuen zerrenda argitaratuko du, baztertu izanaren arrazoia aipatuz.

5.Aparkalekuaren proiektuko plazetarako eskaera eskaintzari gailentzen bazaio, esleipena jendaurreko zozketaren bidez egingo da. Zozketan esleipena lortzen ez duten eskabideekin itxoin-zerrenda bat egingo da, aparkalekuan etorkizunean egin beharreko esleipenentarako aukera izan dezaten.

6.Plazak esleipenean jarraitu beharreko ordena ondoko hau izango da:

a)Usalegezko azokako merkatariek: Plaza bat saltokiko.

b)Auzokoak, San Martin kaleko zenbaki bikoitien aldeko 2.etik 14.era, Askatasun Hiribideko bakoitiak, Foruen Pasealekua, eta Easo kaleko bakoitiak 1.gotik 25.era, kale horiek mugatzen duten alderdian bizi direnak: Plaza bat benetan bertan bizi den familia bakoitzeko.

c)Auzokoak, Askatasun Hiribidea kaleko bikoitiak, Bulebarreko bakoitiak, Argentinaren Errepublikaren pasealekua, Hernani kaleak eta Miramar kaleak mugatzen duten alderdian bizi direnak. Horiekin batera, Easo kaleko bikoitiak 2.etik 20.era, Kontxa pasealekua, San Bartolome kaleko bikoitiak 14.etik 42.era eta bakoitiak 13.etik 37.era, San Bartolome kaleko kalexka barne. Kale horiek mugatzen duten alderdian bizi direnak: Plaza bat benetan bertan bizi den familia bakoitzeko.

d)Merkatariak, b) azpiatalean mugatu den alderdian negozioa dutenak: Ibilgailu bat alderdi horretan duten negozio bakoitzeko.

e)Erdialdean bizi diren gainerako auzokoak (Parte Zaharrekoak barne), alderdi horretako mugak ondokoak direla ulertuz: Araba parkea, Easo kalea, San Bartolome kalea, Aita Vinuesa plaza, ibaia. Ibilgailu bat benetan bertan bizi den familia bakoitzeko.

7.Lehenik, aparkalekuko plaza pribatu baten titularrik ez duten elkarbizitza-unitateei edo jardueri esleituko zaie plaza bana (plaza bat benetan okupatzen den etxebizitzako edo jarduerako). Eskaerak hiru agorturik, eta aurreko azpiatalean zehaztu den lehentasun-ordena berari jarraituz, plaza pribatua baduten elkarbizitza-unitateei eta jardueri emango zaie plaza bana. Azkenik, eta lehentasun-ordena berari jarraituz, lehendik udal-lagapenezko aparkatze-plaza bat duten eskatzaileei emango zaie plaza bana, baita aparkaleku honetan dagoeneko plaza bat eskuratua duten elkarbizitza-unitateei zein jardueri ere.

8.Plazak beren titularrak erabili beharko dituzte, eta ezin dira inolaz ere errentan utzi edo lagatu hirugarren batzuei.

9.Aparkalekua erabiltzeko eskubidearen titularitatea elkarbizitza-unitate berekoen artean eta jardueran aritzen direnen artean eskualdatu nahi izanez gero, hartarako eskabidea aurkeztu beharko da Donostiako Udalean. Mugikortasuneko Administrazio Atalak aztertuko ditu era horretako eskaerak ezarritako irizpideen argitan eta itxoin-zerrendan egonik esleipenerako eskatzen diren betebeharrak betetzen dituen interesatuaren aldeko esleipena proposatuko du. Ez baldin badago inor zerrenda horretan esleipenaren zain, orduan, bere plaza eskualdatu nahi duen horrek proposatu ahal izango dio udalari esleipendun berriaren izena. Egoera aztertu eta Mugikortasuneko Administrazio Atalak egingo du plaza esleitzearen aldeko ala kontrako proposamena.

Ezin izango da, inolaz ere ez, aparkatzeko plazaren eskualdaketa etxebizitzaren salmentarekin lotetsi.

10.Eskualdaketen prezioa esleipenarena izango da. Horri gehituko zaio eskualdatze-eskaera egin arte iragandako urte eta hilabetei dagokien KPIren igoera metatua eta kenduko zaio esleitze-alditik ordura arte erabilitako urte eta hilabeteen proportzioa.

11.Edozein arrazoi dela bide, aparkatzeko plaza erabiltzeko eskubidea baldintzatzen duten eskakizunetarik bat galduko balu esleipendun batek, eskubidea galdu eta udalaren eskuetan utzi beharko du plaza.

Egoera hori dela medio hutsik gelditu den plazarako eskatzaileek ez balego, ez baltzu mistoak eta ez udalak, ez dira erreskatea ordaintzera obligaturik egongo, eta titularrak hartutako konpromisoak bete beharko ditu harik eta plazak beste esleipendun berri bat izan arte.

12.Aparkalekua eraiki eta prestatu ondoren eta udalak hala eskatzen dion guztietan, esleipendunen eta beren helbide eta ibilgailuen zerrenda aurkeztuko dio baltzu mistoak udalari, hartara esleipenak behar bezala egin direla egiaztatu eta berretsi ahal izateko.

13.Aparkatzeko plazen erabiltzaile diren auzokoek kasuan kasuko diru-kopurua ordaindu beharko dute erabiltzaileen artean banatu beharreko gastuetarako (mantentze gastuak, segurtasuna, gastu

komunak) eta diru-kopuru hori ezin izango da izan 5.000 pezeta (30,05 euro) baino handiagoa (2000 urtean) hilabeteko, lehen urtean. Diru-kopuru hori urtero-urtero eguneratuko da KPIrekin.

II. KAPITULUA.ERROTAZIOKO APARKALEKUA

36. atala.

Errotazioko plazak.

1.Aparkalekuko plazen ehunetik berrogei izango dira errotazioko erabilerarako. Kudeatzaileak abonamendu bereziak hitzartu ahal izango ditu eguneko, gaueko, asteko edo hileko, merkatuaren eskaeraren arabera.

2.Ibilgailuak iritsi arauz erabili ahal izango dira aparkalekuko plazak, inolako erreserbarik ez lehentasunik egin gabe, eta inolako ibilgailuri sarrera galarazi gabe nahikoa tokia baldin badago, ezpada ibilgailuren bat sartzen uztearekin arriskua sor badaiteke edo gainerako erabiltzaileei kaltea edo traba egingo zaiela.

3.Donostiako Udalak finkatuko ditu aparkalekuko plazak erabiltze aldera ordaindu beharreko tarifak eta hauek ez dira izango gainerako udal-aparkalekuetan indarrean daudenak baino garestiagoak.

4.Urtean behin berrikusiko dira tarifak, aparkalekua kudeatzen duen esleipendunaren eskariz.

5.Une bakoitzean zenbat plaza libre dagoen adierazten duen informazio-sistema bat instalatu eta etengabe martxan egongo da. Ahal bada, plaza libre horiek non kokatzen diren ere adieraziko du sistemak.

6.Zerbitzuak behar adina langile, eta bitarteko mekaniko, eta hala dagokionean, behar adina bitarteko informatiko ere izango ditu zerbitzua behar diren segurtasunezko eta eraginkortasunezko baldintzetan eman dadin.

IV. TITULUA

ZIGOR ERREGIMENA

37. atala.

Lege-haustea izango da zerbitzuaren kudeatzaileari eta lokalen eta usalegezko azokako saltokien erabiltzaileei arautegi honek ezartzen dizkien obligazioak ez betetzea.

38. atala.

Kasuan kasuko administrazio-atalak esanda Donostiako Udalak ustezko lege-hauste bat egin dela jakiten duenean, hasiera emango dio zigor-espeditente bati Alkatetzaren edo honek eskuordetzen duen zinegotziaren ebazpen baten bidez. Prozedura izapidetzeko, herri-administrazioek zigortzeko duten ahalmena xedatzen duten lege-arauek diotenari jarraitu beharko zaio.

Instalazioak erabiltzen dituen baten aurka zuzenean irekitzen bada espeditentea, zerbitzuaren kudeatzaileari eskatuko zaio txostena emateko.

39. atala.

Lege-haustek arinak, larriak eta oso larriak izan ahal izango dira.

1. Lege-hauste oso larriak izango dira:

- a) Zerbitzu ematek gelditzea, hartarako arrazoirik eman gabe, hiru egunetan baino gehiagotan.
- b) Instalazioak, lokalak eta saltokiak irekitzeko eta ixteko ordutegia hilean hiru aldiz bete ez izana.
- c) Udalaren baimenik eduki gabe, 12. atalean zehazten diren gune publikoak lau egunez edo gehiagoz jarraian okupatu izana.
- d) Azoka berrira sartu nahi duten bezeroei sarbide librea galaraztea.
- e) Auzotarren aparkaleku zatian plaza bat eskatzeko, gezurrezko datuak eman izana.
- f) Lokalak, saltokiak edota aparkatzeko plazak suberrentatzea.

2. Lege-hauste larriak izango dira:

- a) Zerbitzu ematek gelditzea, hartarako arrazoirik eman gabe, hiru egunetan baino gutxiagotan
- b) Instalazioak, lokalak eta saltokiak irekitzeko eta ixteko ordutegia hilean hiru alditan baino gutxiagotan bete ez izana.
- c) Udalaren baimenik eduki gabe, 12. atalean zehazten diren gune publikoak okupatu izana, lege-hauste oso larria ez den kasuetan.
- d) Instalazioen barnealdean zein handik kanpora legez kontrako publizitatea egin izana.
- e) Arautegi honetako 14. Atalean xedatutakoa bete ez izana.
- f) Zamalanak eraikinaz kanpora eta kutsadura akustikoaren prebentziorako aplikagarri diren arauak errespetatu gabe egin izana.
- g) 32. atalean xedatzen diren baimenitarako bete beharreko baldintzak bete ez izana.

3. Lege-hauste arinak izango dira:

- a) Azoka berriko bezeroei behar ez bezalako arreta ez ematea.
- b) Lokalak eta saltokiak behar bezala mantentzeko axolarik ez izatea.
- c) Arautegi honetan zehazten diren gainerako obligazioetarik bat ez betetzea, ez-betetze hori lege-hauste larria edo oso larria ez denean.

40. atala.

Lege-hauste arinen kasuan, zigorra 10.000 eta 50.000 pezetaren arteko isuna izango da (60,10 eta 300,51 euroren artekoa). Lege-hauste larrietarako zigorra 50.001 eta 75.000 pezetaren arteko isuna izango da (300,51 eta 450,76 euroren artekoa) eta lege-hauste oso larrietarako, 75.001 eta 150.000 pezetaren arteko isuna (450,77 eta 901,52 euroren artekoa).

41. atala.

Azoka Berriaren Barne Eraentzako Arautegiak zehaztuko ditu zein diren azokaren antolakuntzaren

eta funtzionamendu egokiaren aurkako jokabideak eta, hala dagokionean, xedatuko ditu saltokien eta negoziarako lokalen errentariei hori dela eta Baltzu Mistoak ezarri ahal izango dizkien zigorrak. Sinatzen diren errenta-kontratuetan berariaz agertu beharko du errentariak Barne Eraentzako Arautegiko xedapenak onesten dituela.

ALDI BATERAKO LEHEN XEDAPENA

San Martin Azoka Berriko lanak bukatu artean, Donostiako Udalak erabakitzen duen tokian ematen jarraituko da usalegezko azokaren zerbitzua. Herri-domeinuko tokia izango denez, udalak ez du exijituko inolako kanonik ordaintzerik toki hura okupatze aldera.

Behin-behineko azoka-tokira aldatzen diren usalegezko azokako asentadoreek beraiek eskuratu beharko dute beren jarduerarako behar duten makineria eta materiala.

Baltzu Mistoak bere gain hartuko du behin-behinean zerbitzua emango den tokiko obra zibilaren eta instalazio orokorren exekuzioaren kostua.

Saltokiak okupatzen dituztenek soilki beren jarduera egiteko sortzen dituzten gastuak eta instalazioetako gastu komunak ordaindu beharko dituzte.

ALDI BATERAKO BIGARREN XEDAPENA

Ekonomia mistoko baltzua eratzen den egunean, San Martin azokan usalegezko azokan saltokiak ustiatzen ari eta azoka berrian ustiatzen jarraitu nahi luketenak, dagokien saltokiaren negoziarako lokal baten errenta-kontratu bateko titular izango dira kasuan-kasuan aztertuko den epe batez, baina ezin izango dute errentari izaten jarraitu, inolaz ere ez, behin hirurogeita bost urteak bete ondoren. Kontratuak ondoko baldintza hauek jaso beharko ditu:

a) Errentariak errenta bat ordaintzeko obligazioa ezartzen dio bere buruari. Errenta horren zenbatekoa, lehen urtean (2000.ean), gehienez ere 50.000 pezetakoa (300,51 euro) izango da, batez beste, 24 m²ko saltoki baterako. Errenta hori hilero ordaindu beharrekoa da eta urtero eguneratuko da KPIren arabera.

b) Errentariaren obligazioa izango da usalegezko azoka eraikitzeak kostu osotik okupatzen duen saltokiaren azaleraren arabera dagokion gastuen proportzioa ordaintzea. Azokako barne eraentzako arautegian arautuko da gastuei aurre egiteko kuoten zizendapena.

c) Hamabost urtero eta errentariaren kontratuaren indarraldiaren barnean, okupatzen duen saltokia moldatzeko gastuak ordaintzeko obligazioa izango du errentariak, halatan saltoki erakargarriak eta mantentze-baldintza onargarriak dituzten saltokiak egongo direla uneoro bermatu ahal izateko.

d) Errentariak berak ustiatu behar du azokako saltokia.

e) Errenta-kontratua ez da eskualdagarri izango. Honen salbuespena da titularraren alargunaren kasua, honek jarraitu ahal izango baitu saltokia ustiatzen hirurogeita bost urte bete arte.

f) Kontratuaren indarraldia amaiturik, edo titularrak jarduerari utzi nahi dion kasuetan, Baltzu Mistoak berriro eskainiko du saltokia alokairuan.

g) Baltzu mistoak saltokia eraikitzeak egindako gastuetatik oraindik amortizaturik ez legokeen zatia konpentsatzeko diru-kopuru bat ordainduko dio saltokia uzten duen errentariari.

h) Errenta-kontratua amaiturik, edo, kontratu hori indarrean egonik ere, saltokiaren titularrak hura bukatutzat eman nahiko balu, bi aukera izango ditu:

— Baltzu Mistoak finkatuko duen diru-kopuru bat jasotzea.

—Saltokiak errentan hartzeko zehazturik dagoen prozedurarekin aurrera egitea eta, saltokia ustiatzen interesa dutenek eskaintzen duten zenbatekoa oinarri harturik, sortarazitako merkataritza-funtsetik diru-kopuru bat eskuratzea. Funts hori kalkulatzeko, eskaini den prezioa zati udalak saltokia errentan hartzeko finkaturik duen prezioa, eta horren emaitza bider hiru milioi bostehun mila pezeta/2000 urtean. (3.500.000 pta; 21.035,42 euro) Bigarren formula hau aukeratzen duen errentariak bere gain hartu beharko du aukerabide honen emaitza, era guztietara.

i)Azoka berrira datorren kontratu-titularra lehendik bere seme edo alaba batekin batera saltokia ustiatzen gutxienez bi urte jarraituetan aritu bada, eta bere seme edo alaba horrek ustiapenarekin aurrera egiteko interesa agertuko balu titularrak, bai kontratua indarrean delarik, bai kontratua amaiturik, interesatuak merkataritzarako duen nortasuna eta kualifikazioa ikusirik eta saltoki-mota hori azokarako komenigarria den azterturik, Baltzu Mistoak errentan emango dio zuzenean saltokia titularraren seme edo alabari, Arautegi honetako II. Tituluko xedapenekin bat etorriz, eta bide horretaz, saltokiaren titularra uko egingo dio xedapen honetako h) azpiatalean xedatutako diru-kopuruari.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Arautegi honetan udalaren baimenak edo udalaren adostasuna aipatzen denean, Alkatetzaren ebazpenei egindako erreferentziak direla ulertu beharko da.